

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudioko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailearen 10 egunean hartutako erabakiaren laburpena. Zeinaren bidez onartu egin da 2019rako hezkuntza, berdintasuna eta gazteria arloan jarduerak garatzeko irabazi asmorik gabeko herriko elkarteentzako diru-laguntza deialdia

BDNS(Identif.): 515195

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/515195>).

Lehenengoa. Onuradunak

Laudio udalerrriaren barrutian hezkuntza, berdintasuna eta gazteriaren arloan aisialdi eta denbora libre heziketa-, informazio-, prebentzio- eta arreta-jarduerak eta lanak nahiz gizarte-ratze-ekintzak gauzatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteak.

Bigarrena. Xedea

Hezkuntza, berdintasuna eta gazteriaren gaitan jarduerak elkarrekin batera finantzatzeko diru-laguntzak, betiere jarduerak Laudio udalerrian bertan egiten badira edota udalerrirako interesa badute.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu batzarrak onetsita 2018ko urriaren 5ean. ALHAOn argitaratuko dira 2018ko urriaren 19an.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiak duen ekonomia-zuzkidura hauxe da:

3.450,00 euro, hezkuntza arloan garatuko diren jardueretarako.

10.100,00 euro, aukera berdintasunaren arloan garatuko diren jardueretarako.

800,00 euro, gazteriaren arloan garatuko diren jardueretarako.

Bosgarrena. Eskakerak aurkezteko epea

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita, hogeita hamar egunekoa izango da.

Laudio, 2020ko uztailearen 10a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE